



MERKATARITZAKO SALTOKIAK MODERNIZATZEKO 2018ko LAGUNTZA-PROGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

Xedea

EAEko merkataritzako saltokien modernizazioa sustatzea.

Onuradunak

Negozio-bolumenaren aldetik, jarduera nagusia **merkataritza** duten enpresa ertain eta txikiak, betiere eskabidea aurkezteko orduan **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan**, altan egotea.

Diruz lagun daitezkeen proiektuak

A) Altzariak, ekipamenduak, lokala eta kanpoko nahiz barruko elementuak eraberritzea eta eguneratzea.

Inbertsioa gutxienez 5.000 eurokoa izango da. Ez da inolaz ere merkataritza-lokala ezta garraiorako elementua erostea diruz lagunduko. Leasing edo renting bidez ekipamendua lortzea ere ez da diruz lagunduko. Itzuli beharrik gabe ematen den kopurua diruz lagun daitekeen inbertsioaren **% 16koa da**.

B) Balantza elektronikoa, informatika-ekipoak, aplikazioak eta hauen osagarriak, beti merkataritza-prozesuen barruan integraturik badaude edo enpresa-kudeaketarako badira.

Inbertsioa gutxienez 1.500 eurokoa izango da. Itzuli beharrik gabe ematen den kopurua diruz lagun daitekeen inbertsioaren **% 16koa da**.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Ez du diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoak **9.000 euro** gaindituko saltoki eta urte bakoitzeko.

Aurreko laguntzen portzentaiak handitu egingo dira saltokiak hauetako baldintzaren bat betetzen badu:

- % 1 gehiago baldin eta eskaera egunean saltokia Erregistroan inskribatutako merkataritza-elkarteren bateko kide bada.
- % 2 gehiago UNE 175001-1 ziurtagiria izanez gero edo Saltokitik enpresara programan parte hartzen badu.
- % 1 gehiago inbertsioa kudeaketa-sofwareerako erabiltzen bada.
- % 2 saltokiaren nagusiak edo gutxienez hango langile batek hezkuntza arautuko tituluren bat duela egiaztatzen badu.
- % 2 gehiago saltokia Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko Erakunde Laguntzaile baldin bada.
- % 2 "Berriz Enpresa" programan parte hartzen badu.
- % 2 Kontsumobideko Arbitraje-Sistemari atxikita badago
- %2 balio erantsia dakarren edo berezitasuna ematen duen inbertsioa eginez gero

Inbertsioaren betebeharrak

Diruz lagunduko dira **2017ko uztailaren 17tik eskaerak egiteko epea bukatu arte egindako inbertsioak**. Elementu berriak izan beharko dira, enpresan gutxienez 3 urtetan iraun, hirugarren batzuei ez laga, enpresak berak egin gabeak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan egin.

Eskaerak egiteko epea

2018ko uztailaren 2ra arte edo funtsak agortu arte.

Portugaleteko Merkataritzako Bulego Teknikoa

Portugaleteko Udala

Merkataritza Saila

Gizarte-etxea, 4. solairua.

48920 Portugalete - Bizkaia

94 472 93 53

comercio@portugalete.org

Jendaurreko ordutegia: 8:00etik 14:00era